

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDE-SAREAREN SAILKAPENA

1.1. SARE FUNTZIONALA

Sare funtzionala lurralde historikoak beren artean eta inguruko autonomia-erkidegoetako bideekin lotzen dituzten errepideek osatzen dute; hain zuzen, errepide horietako zirkulazioa eta horien lurralde-banaketa garrantzitsua da. Errepide horiez gain, egungo zirkulazioak eta fluxuak asaldatzeko erabakigarriak izan daitezkeen gainerako ibilbideak ere sare funtzionalean sartzen dira.

Sare funtzionalean hiru sare-mota bereiz daitezke, betetzen duten funtzioaren arabera:

❑ **Lehentasuneko sarea:** honako ibilbide hauek dituzten errepideek osatzen dute:

- Nazioarteko ibilbideak.
- Mugak zeharkatuz Frantziara doazen ibilbideak.
- Interes orokorreko portuetara eta aireportuetara doazen ibilbideak.
- Erkidegoen artean zirkulazio-bolumen handia duten ibilbide luzeak.
- Ibilgailu astunen kopuru handia edo merkantzia arriskutsuen zama ugari duten ibilbideak, Euskadi barnekoak nahiz kanpokoak.

❑ **Errepide-sare nagusia:** lehentasuneko sarea ez izan arren, lurralde historikoak egituratzen dituzten errepideek osatzen dute, eta ibilbide osoak izaten ditu. Errepide horiekin batera, zirkulazio garrantzitsua duten eta lurralde historikoak elkarren artean nahiz inguruko autonomia-erkidegoekin lotzen dituzten errepideak ere aipatu behar dira.

❑ **Eskualdeko errepide-sarea:** zirkulazio handia ez izan arren, inguruan dauden eskualdeak komunikatzen dituzten errepideak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenean, sare funtzionala aldatu egin da aurreko planean proposaturikoarekin alderatuz:

❑ Indarrean dagoen errepide-planean, Bilboko metropoliaren sarea barne-eraztun baten itxiturekin zegoen osatuta, Olabeagako ertza eta biaduktuaren bidez. Eraztun horrek edukiera handia zuen eta hiri-bilbetik bereizita zegoen; gainera, A-8 autobidea eta Enekuri etorbidea (Txorierri aldera) lotzen zituen. Era berean, iparraldean arku bat zegoen (errepide-sare nagusia), N-634 errepidetik hasi (Ibarsusi) eta Salve zubia, Artxandako ertza, Ibarrekolanda, Deustuko behe saihebidia eta Olabeagako biaduktura eta ertza arte iristen zena.

Bilboko Udala jardura batzuk egiten ari da BI-625 errepide-sare nagusian, Ibarsusitik hasi eta Salve zubira arte (Zumalakarregi etorbidea); zehazki, bulebar itxurako hiri-barneko bide bihurtu nahi dute. Horrez gain, Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aldaketa zehatzean eredu berri bat aurreikusi da (Zorrotzaurren); hau da, eremu horretarako loturak egin nahi dira, hiri-ezaugarriak dituzten hainbat iragazkortasun-elementuren bidez eta garraio publikoaren garapenean eta konexioetan oinarrituz. Aldaketa horiek guztiek Bilboko metropoliaren foru-sareak duen garrantziaren eta funtzioaren antolamendua baldintzatzen dute; hain zuzen, helburu nagusia kanpo-fluxuak edo iristeak edukiera handiko errepide-sarearekin lotzeko irisgarritasun egokia eta iraunkorra bermatzea da. Zehazki, sare funtzionalari dagokionez, honako lotura-gune hauek azpimarratu behar dira: Ibarrekolandako biribilgunea (Fatima – Txorierri lotunea); Orueta, Otxarkoaga eta Txurdinaga loturak (Santo Domingo – Txorierri eta Ibarsusi – N-634 errepidea lotunea); Miraflores eta Miribila loturak (AP-68, A-8 eta metropoliko hegoaldeko saihebidarekin lotunea); Juan de Garai lotura (A-8arekin lotunea); eta San Mameserako sarbideekin lotura (A-8arekin lotunea). Beraz, **BI-625 errepidea** sare funtzionaletik bereizi egin nahi da Bilboko metropoli inguruan; hau da, N-634 errepidearekin elkartzeko den lekutik (Ibarsusi) Ibarrekolandara arte –orain arteko lanak Artxandako Tunelaren ahorraino egin dira (Ugaskon)–.

Gainera, Bilboko metropoli-arean, Ballontiko korridorean egin diren eta aurreikusita dauden jarduerekin Bilbok beste sarrera bat izango du Sestao aldetik, N-634 errepidearen funtzionaltasuna ere hobetuz. Plangintzari jarraituz egingo diren jarduerekin, korridore hori Sestaotik Portugaleterako autobia modukoa bihurtzen dute, nahiz eta epe luzera Balpardaraino eramateko asmoa dagoen. Funtzionaltasunaren aldetik, korridorearen helburua da udalerrira Bilborantz edo A-8 autobiderantz zeharkatzen duten trafikoak bideratzea, eta, bide batez, metropoli-areako zirkulazio-baldintzak hobetzea. Beraz, esan daiteke ezker aldeko edukiera handiko sarbide bihurtuko dela, etorkizunean eskuinaldearen ere lotuko dena, Lamiakoko korridorearen eta Ballontiko antena – Leioakoaren bidez, Axpe – Astrabadua bidezuba jardura horren zati izango delarik.

Bestetik, N-634 errepidea, Bilbo inguruan, funtzionaltasunaren aldetik erabat lokal izatera iritsi da pixkanaka, hainbat zeharbide gurutzatzen dituen, eta edukiera handiko sarera nekez eraman daitezkeen aldirietako trafiko bati erantzuten diona. Hori gertatu da esaterako Necedal – Basurtu tartean; zati horren funtzionaltasuna Ballontiko korridoreak eta bi puntu horien arteko itsasadarreko ardatzak osatutako edukiera handiko ibilbideak ordeztu behar baitzuten, Errepideen Plan Orokorraren helburuarekin bat etorriko den funtzionaltasuna izateko. Nolanahi ere, Urban Galindo inguruan itsasadarreko ardatzaren eraldatzearekin erabat ezabatu da ibilbide osoaren herriarteko izaera, eta Ballontiko korridoreak bereganatuko du ezker aldeko edukiera handiko sarbidearen eta Lamiakoko korridorearen bidez eskuinaldearekiko konexioaren funtzionaltasuna. N-634 errepideak tarte horretan izango duen funtzionaltasuna ez dator bat Planaren xede den sarearen helburuekin, eta hortaz, Necedal eta Basurtu artean lehentasuneko sareko izateari utzi, eta Planaren xede den saretik eta sare funtzionaletik at utzi da. Arrazoi berarengatik utzi da Planaren xede de saretik eta sare funtzionaletik at

Ibarsusi- Miraflores- Atxuri tartea, nahiz eta Ibarsusi- Miraflores tartea aurreikusita dagoen ekialdeko saihezbidea zerbitzuan sartutakoan utziko den kanpoan

❑ **Udalei transferitutako errepideak:**

- BI-2604 errepide osoa (Sodupe – Arabako muga; luzera: 8,4 km), Gordexolako Udalari esleitu.
- BI-634 errepidea, BI-2122 – BI-2704 zatia (luzera: 3,63 km), Sopelanako eta Urdulizko Udalei esleitu; izan ere, funtzio hori etorkizunean eraikiko duten ibilbideak beteko du, egungo BI-3124 eta BI-2704 errepideen ibilbidetik pasako denak, hain zuzen.

Bestalde, planaren xede den sarearen katalogotik kendu ondoren (5/02 Legea, 2/89 Legearen bigarren aldaketa), honako errepide hauek funtzioz aldatuko dute; hala eta guztiz ere, sare funtzionalean jarraituko dute:

- ❑ Lehentasuneko sarearen N-130 errepidea eskualdeko errepide-sare bihurtuko da; zehazki, GI-2135.
- ❑ Errepide-sare nagusiko GI-120 errepidea eskualdeko errepide-sare bihurtuko da; zehazki, GI-2120.

Aldaketa horiek direla-eta, sare funtzional berria osatzen duten errepide guztien luzera 1.678 km-ra iritsiko da; Errepideen Bigarren Plan Orokorrean aurreikusitako sare funtzionalak, berriz, 1.689 km zituen.

1.2. PLANAREN XEDE DEN SAREA

Planaren xede den sarea, indarrean dagoena

Maiatzaren 30eko 2/89 Legean (*Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra –azaroaren 8ko 2/1991 Legeak* aldatua– *arautzen duena*) erabakitakoari jarraiki, planaren xede den sarea lurralde historikoak beren artean nahiz inguruko autonomia-erkidegoetako errepideekin lotzen dituen errepide-multzoak osatzen du; hain zuzen, errepide horietako zirkulazioa garrantzitsua da.

Sare horretan, lehentasuneko sareko zatirik handiena sartu da, bai eta errepide-sare nagusiko zenbait errepide ere; aldiz, sare funtzionala osatzen zuten eskualdeko errepide-sarearen errepide guztiak bertatik kanpo utzi dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorra (1999-2010) onartu ondoren, plan horren xede den sarean sartutako errepide guztiak berrikusi beharko dira. Aldaketa hori, hain zuzen, *urriaren 4ko 5/02 Legean* jaso da, *Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra Arautzeko Legea bigarrenaz aldatzen duen legea*; bertan, planaren xede den sarearen Katalogoa erantsi da, *maiatzaren 30eko 2/1989ko Legeari* dagokiona ordezkatzen duena.

Aldaketa hori dela-eta, planaren xede den sarean ibilbide berriak gehitu dira; izan ere, indartu beharreko errepidetzat hartu dira, bai lurralde bakoitzaren barne-sarea egituratzeko edo ondoko lurraldeetako eskualdeekin lotzeko duten funtzioagatik, bai lurralde arteko edo erkidegoen arteko ibilbideetan sartzeagatik.

Era berean, katalogo berrian, zenbait errepide planaren xede den saretik kanpo utzi dira; hain zuzen, hainbat arrazoi direla-eta funtzioa galdu dutenak.

Zehazki, honako hauek dira urriaren 4ko 5/02 Legean planaren xede den sareari buruz jasotako aldaketak:

❑ **Planaren xede den sarean** honako errepide hauek **sartuko dira**:

- Lehentasuneko sarea
 - Donostiako bigarren ingurabidea.
 - Gipuzkoatik pasatzen den N-121-A errepidea, Nafarroako Foru Komunitateak transferitu ondoren.
- Errepide-sare nagusia
 - A-124, BI-631, BI-633, BI-635, BI-637, BI-639, BI-625, BI-604 eta GI-631 errepideak (lurralde historiko bakoitzean bide-sarea egituratzeko ardatz-funtzioa betetzen dute).
 - BI-638 eta GI-638 errepideak (bi lurralde historikoren inguruko eskualdeak lotzen dituzte).

❑ **Planaren xede den saretik kanpo**, berriz, honako errepide hauek geldituko dira:

- N-130 errepidea (egungo GI-2135): A-15 ibilbide alternatiboaren ondorioz funtzioa galduko baitu.
- GI-120 errepidea (egungo GI-2120): N-240 eta N-1 ibilbide alternatiboetan egindako hobekuntzak direla-eta, funtzioa galduko baitu.

❑ **Aldaketa teknikoak**

Aldaketek ibilbideari eta zenbait errepideren luzerari eragiten diete; horiek, hain zuzen, sarean egiten diren esku-hartzeen edo zenbait bide-zatiren funtzioa beste batzuegatik aldatzearen ondorio dira.

Bestalde, lehentasuneko sarean BI-632 eta GI-632 errepideak sartu dira (N-636 izendapena hartuko dute); errepide horietatik ibilgailu astunen kopuru handia bideratuko da.

❑ **Beste aldaketa batzuk**

Azkenik, *urriaren 4ko 5/02 Legean*, beste aldaketa batzuk egin dira, administrazio eskumendunak errepidean edo bide-zatian esleipen egokia egiteko eta, hala badagokio, lurraldetasun-arrazoiengatik bide-zati bat kanpoan uzteko. Zehazki, honako errepide hauei eragin diete:

- A-8 autobidea: estatuak zituen funtzioak eta zerbitzuak autonomia-erkidegoko erakundeetara transferitu dituzte, eta horiek lurralde historikoetara.
- N-I errepidea: Condado de Treviño bide-zatia baztertu da; izan ere, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 18ko 132/98 epaiak inkonstituzionaltzat jo zuen.
- A-624 errepidea: Burgosko probintziatik igarotzen den bide-zatia baztertu da.
- BI-624 errepidea: horren kudeaketa eta ustiaketa Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Nazioarteko ibilbideak

Planaren xede den sareko errepideei dagokionez, honako hauek hartu dira nazioarteko ibilbidetzat (1986ko irailaren 12tik indarrean dagoen "Nazioarteko Zirkulazioaren Ibilbide Handiei buruzko Europako Hitzarmenaren" arabera):

- ❑ E-70 ibilbidea: A Coruña – Oviedo – Bilbao – Donostia – Bordele. Euskadin A-8 autobidearen baitan sartzen da, Behobiatik El Hayara.
- ❑ E-80 ibilbidea: Lisboa – Coimbra – Burgos – Donostia – Paue. Euskadiko zatiari dagokionez, A-1 ordainpeko autobidea (Armiñón arte), N-I errepidea (Armiñón – Donostia) eta A-8 autobidea (Donostia – Behobia) hartzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorrean aurreikusitako lanak amaitzean, Vitoria-Gasteiz eta Eibar arteko bidea A-1 autobidearen (Burgos – Kantabria) bidez egingo da.

- ❑ E-05 ibilbidea: Glasgow – Donostia – Madril – Sevilla – Algeciras. Euskadin E-80 ibilbidearen berdina da.
- ❑ E-804 ibilbidea: Bilbao – Zaragoza – Bartzelona. Bilbao eta Zambrana arteko A-68 autobidearen ibilbideari dagokio.

Planaren xede den sarea aldatzeko proposamenak

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorren berrikuspen honetan (2005-2016 aldiari dagokio), egokitzeak jo da indarrean dagoen eta planaren xede den sarea aldatzea, sare hori egungo egoerara egokitzeko eta funtzioa galdu duten zenbait bide-zati bertatik kanpo uzteko. Aldaketa horren izapidetze-prozedura

azaroaren 8ko 2/1991 Legean –Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra Arautzeko Legea Aldatzen duena– araututakoaren arabera egingo da.

Zehazki, Bizkaiko lurralde historikoari dagokionez, honako bide-zati hau planaren xede den saretik kanpo uztea proposatu da:

- ❑ **BI-625 errepidea:** Bilboko metropoli-gunean, N-634 errepidearekin lotzen den lekutik (Ibarsusi) Ibarrekolanda arte –orain arteko lanak Artxandako Tunelaren ahorraino egin dira (Ugaskon)–.
- ❑ **N-634 errepidea,** Necedal – Basurtu eta Ibarsusi-Miraflores-Atxuri tarteak, nahiz eta Ibarsusi- Miraflores tarte aurreikusita dagoen ekialdeko saihezbidea zerbitzuan sartutakoan utziko den kanpoan.

Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoan **Ballontiko korridoreko** zerbitzuko jarduerak Planaren xede den sarean sartzea proposatzen da.

Eta Planaren xede den sarearen definizio berri horrekin, saretik kanpoan utzi dira Barakaldo, Ortuella, Bilbao, Retuerto, Trapagaran, Basauri, Ugarte eta Zorrotzako zeharbideak

Bestalde, **Bilboko metropoliko hegoaldeko saihezbidea** martxan jarriko da, eta azpiegitura horrek ibilbide luzeko ibilgailuen eta ibilgailu astunen zirkulazioa hartuko du; horrela, zirkulazioa Bilboko eta ezker aldeko hainbat udalerritako hiri-guneetatik urrunduko da, eta hegoaldeko bide-antolamendua Bilbora sartzeko herri barruko bide bihurtuko da. Saihezbide hori martxan jartzen den unean, bide hori planaren xede den sarean sartu beharko da.

Antzeko irizpideari jarraituz, A-8 autobideak Donostialdetik igarotzean duen ibilbidea planaren xede den sarean mantenduko da, **Donostiako bigarren ingurabidea** martxan jarri arte. Ingurabide horrek autobidearen funtzionaltasuna hartuko du Aritzetako loturaren eta Oiartzungo loturaren artean (hau da, hiri arteko zirkulazioa bideratuko du), eta planaren xede den sarean sartuko da.

Planaren xede den sarearen nomenklatura aldatzeko proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/89 Legean (azaroaren 8ko 2/1991 Legeak aldatua), Euskadiko errepideak izendatzeko printzipio nagusiak ezarri ziren, horien funtzionaltasuna kontuan hartuta egindako hierarkizazioari jarraiki.

Lege horrek, gainera, agerian uzten du administrazioen arteko koordinazioaren beharra, erkidegoz kanpoko ibilbideak dituzten errepideak izendatzeko, eta, aldi berean, horien aldaketa teknikoak arautzen ditu.

Irailaren 26ko 1231/2003 Errege Dekretua –Estatuko Errepide Sareko autobideen eta autobien nomenklatura eta katalogoa aldatzen dituen– onartu ondoren, beharrezkoa da EAEko errepideen izendapenak aipatutako Errege Dekretu horretako irizpideen arabera egokitzea; zehazki, aldaketak izan dituzten eta EAEn jarraipena duten errepideetan. Izan ere, era horretan, eraginkortasuna eta koherentzia lortu nahi dira; hau da, erabiltzaileak hobeto informatzea eta orientatzea.

Bestalde, 90eko hamarkadan bilakaera handia gertatu zen EAEko errepide-sarean; besteak beste, irisgarritasuna hobetzeko eta ibilbideetako edukiera handitzeko. Hori dela-eta, azpiegitura berriak sortu eta lehendik zeudenak handitu eta/edo aldatu zituzten. Dena den, bide horietako batzuetan, hierarkizazioa bere horretan mantendu da, nahiz eta horien funtzionaltasuna urte hauetan aldatuz joan den.

Aurreko hausnarketak kontuan hartuz, **planaren helburu den sareko nomenklatura aldatzea proposatu da**; horretarako, honako oinarrizko printzipio hauek jarraitu dira:

❑ Irailaren 26ko 1231/2003 Errege Dekretuak zehaztutako **Estatuko Edukiera Handiko Errepide Sareko izendapen eta nomenklaturarekin koherentzia izatea.**

Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatzen duten autobien eta autobideen ibilbideei izendapen berria emateko proposamena:

- A-1: Iparraldeko Autobia.
- AP-1: Burgos – Kantauri aldea (Eibar) ordainpeko autobidea, EAE barneko bide-zatian; estatuaren eskumenekoa da, eta Armiñónera arte iristen da.
- A-8: Kantauriko Autobidea.
- AP-8: Bilbao – Behobia ordainpeko autobidea.

❑ Erkidegoz kanpoko ibilbideak dituzten eta planaren xede den sarea osatzen duten errepideetan, **erkidego mugakideekin eta estatuarekin koordinatuta egotea.**

❑ Planaren xede den sareko errepideek duten **funtzionaltasunarekin, kudeaketa-sistemeekin eta ezaugarri geometrikoekin koherentzia izatea.**

Alderdi horri dagokionez, nomenklaturan egin daitezkeen aldaketek honako errepide hauei eragin diezaikete:

- N-636 errepidea: Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenean aurreikusitako jarduerak gauzatu eta gero, Gipuzkoako zatian izango duen izendapen berria "A-70" edo "AP-70" izango da, bide-zatiaren kudeaketaren arabera.
- GI-131 errepidea: Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenean aurreikusitako jarduerak gauzatu eta gero, bide-zati horrek izendapen berria izango du: Donostia – Iruña korridoreko "A-15"; ondoren, N-I errepidean izango du jarraipena, Aduna eta Andoain artean.
- A-8 autobideak Basauri – Santurtzi bide-zatian duen funtzionaltasuna (Bilboko hegoaldeko bide-antolamendua deitua) Bilboko metropoliko hegoaldeko saihezbideak beteko du (zerbitzua abian jartzen

dutenean); hau da, hiri arteko zirkulazioa bideratuko du, eta AP-8 izendapena hartuko du, ordainsaria duen bide-zatian.

- Donostiako bigarren ingurabideak –Aritzetako loturaren eta Oiartzungo loturaren arteko bide-zatian– A-8 autobidearen funtzionaltasuna beteko du, eta, beraz, hiri arteko zirkulazioa bideratuko du. Zehazki, AP-8 izena hartuko du.

Nomenklaturan izan diren aldaketak nahiz indarrean dagoen eta planaren xede den saretik aipatutako bide-zati hori kentzea direla-eta, 2016ra arteko berrikuspen honetan planaren xede den beste sare bat proposatu da (1. eranskinean sartu da).




INDARREAN DAGOEN ETA PLANAREN XEDE DEN SAREA

Lehentasuneko sarea

- Autobideak
- Autobiak eta galtzada bikoitzeko bideak
- Errepide arruntak

Errepide-sare nagusia

- Autobideak
- Autobiak eta galtzada bikoitzeko bideak
- Errepide arruntak



INDARREAN DAGOEN SARE FUNTZIONALA

Lehentasuneko sarea

Autobideak

Autobia eta galtzada bikoitzeko bideak

Errepide arruntak

Errepide-sare nagusia


Autobideak


Autobia eta galtzada bikoitzeko bideak

Errepide arruntak

Eskualdeko errepide-sarea

Errepide arruntak





INDARREAN DAGOEN SARE FUNTZIONALA

Lehentasuneko sarea

- Autobideak
- Autobiak eta galtzada bikoitzeko bideak
- Errepide arruntak

Errepide-sare nagusia

- Autobideak
- Autobiak eta galtzada bikoitzeko bideak
- Errepide arruntak

Eskualdeko errepide-sarea

- Errepide arruntak